



AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURREKO ONARPENA EMATEN BAITZAI LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK BITARTEKOTZA- ETA ENPLEGATZE-ZERBITZUA EMATEKO ENPLEGU-AGENTZIEKIN EGINDAKO AKORDIO IREKIAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUARI.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguoko sailburuaren 2025eko apirilaren 24ko Aginduari bidez, hasiera eman zitzaion Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak enplegu-agentziekin bitartekaritza- eta enplegu-zerbitzua emateko hartutako akordio irekiak arautzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 15.1 artikulua honela dio: "Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".

Adierazitakoaren arabera, behin dekretu-proiektuaren testua idatzita eta prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuarekin bat etorritik dagozkion izapideak egin aurretik alde aurreko onarpena eman behar zaio eta, beraz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bitartekotza- eta enplegu-zerbitzua emateko enplegu-agentziekin egindako akordio irekiak arautzen dituen dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena.- Araua egiteko prozedurarekin jarraitzea xedatzea, eta behar diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, bat etorritik prozedura hasteko 2025eko apirilaren 24ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean adierazitako premisekin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguoko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO

